

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Uraren banaketa eta homikuntzagatik eta saneamenduagatik ordaindu beharreko tarifak arautzeko ordenantzari behin betiko onespena ematea

Gasteizko Udalaren uraren ziklo integraleko udal zerbitzuen zerga-sistemaz kanpoko izaera publikoko ondare-prestazioaren ordenantza lokalari behin-behineko onespena ematea erabaki zuen udalbatzak 2021eko abenduaren 22an egindako osoko bilkuran.

Jendaurreko erakustaldian —Udalaren iragarki-taulan jarrita egon da iragarkia, eta 2021eko abenduaren 29an argitaratu zen ALHAOn— alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betikotzat jotzen da behin-behineko erabakia, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua ildotik —Toki-administrazioa arrazionalizatzeari eta haren iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legean emandako idazkuntza—. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitako betekizunak betetzen direlarik jarriko da indarrean, 15 egun baliouduneko epean, ALHAOn osorik argitaratzen denetik. Hori dela eta, onetsitako ordenantzaren testu osoa eransten da.

Behin betikotzat jotzearen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.1 artikuluen ildotik, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, egokituz jotzen den beste edozein aurkezteko aukera gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 25ean

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

**GASTEIZKO UDALAREN URAREN ZIKLO INTEGRALEKO UDAL ZERBITZUEN ZERGA-SISTEMAZ
KANPOKO IZAERA PUBLIKOKO ONDARE-PRESTAZIOAREN ORDENANTZA LOKALA****1. KAPITULUA: UDALAREN HORNIKUNTZA- ETA SANEAMENDU-ZERBITZUEN TARIFAK****1. artikulua.- Xedea eta aplikazio-eremua**

Gasteizko udalerriko eta beraren jurisdikzioko herrietako etxeetara ura hornitzeko zerbitzuaren eta saneamendu-zerbitzuaren tarifak arautzea da ordenantza honen xedea, baita horiei lotutako uraren ziklo integraleko jardueri dagozkien eskubide ekonomikoak ere.

Udal-titulartasuneko zerbitzu publiko horiek Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz, S.A. – Vitoria-Gasteizko Udal Urak, SA (AMVISA) enpresak ematen eta kudeatzen ditu.

Amvisak zerbitzu horiek beste herri batzuetan ematen dituelarik ere aplikatu ahal izango dira arau honen gai diren tarifa eta eskubide ekonomikoak.

2. artikulua.- Tarifen izaera

Etxeetara ura hornitzeko zerbitzua eta saneamendu-zerbitzua emateagatik nahiz horiekin lotutako obra eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tarifek eta gainerako eskubide ekonomikoek zerga-sistemaz kanpoko izaera publikoko ondare-prestazioei dagozkien tarifa eta eskubide ekonomikoen izaera dute, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Toki Ogasunak Arautzeko Legearen testu bateratuaren 20.6 artikulua arabera —Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak emandako idazkuntza— eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren lehen xedapen gehigarriaren ildotik —Zerga neurrien abenduaren 13ko 22/2019 Foru Arauak emandako idazkuntza—.

3. artikulua.- Ordaintzera behartuak

Ura hornitzeko edo saneamendurako kontratu baten titular den oro egongo da behartuta egindako kontsumoen nahiz emandako zerbitzuen zenbatekoa ordaintzera, aldian-aldian indarrean dauden tarifen arabera, baita arau hauetan jasotzen diren gainerako kontzeptuak ere, testuan adierazten diren zenbatekoan eta epeetan.

AMVISAK ematen dituen zerbitzuak kontratua formalizatu gabe erabiltzea iruzurtzat joko da, eta higiezinaren jabe diren pertsona fisiko edo juridikoak egongo dira ordaintzera behartuta. Halakorik ezean, benetan edo potentzialki zerbitzu eta jarduera horien onuradun edo eragindako egokitzen direnak.

4. artikulua.- Tarifak**LEHENENGO TARIFA.- Zerbitzu-kuota.**

1. Ur-hornikuntzarako eta ur zikinen saneamendurako (estolderia eta arazketa) zerbitzua erabiltzeko eskubideagatik —lotunea instalatzearekin ematen da—, eta erabiltzaile edo abonatuaren erregistroan egiten den izen-emate bakoitzeko, kontsumitutako urari dagokion kuota alde batera utzita, hauxe likidatuko da, hiru hilean behin:

Kontagailua	Hornikuntza- zerbitzua	Arazketa- zerbitzua	Estolderia- zerbitzua
mm	euroak	euroak	euroak
15era arte	5,62	6,48	3,52
20	9,44	9,49	4,22
25	13,66	13,66	6,03
30	23,00	23,40	9,60
40	38,30	38,90	18,10
50	60,70	61,80	26,60
65	79,90	82,00	38,30
80	95,80	98,00	49,00
100	136,30	138,40	61,80
125	223,60	223,60	83,10
150	777,30	793,60	298,10
200	1.362,90	1.384,20	575,00

Tarifa hori AMVISArekin formalizatutako kontratu guztiei aplikatuko zaie, zerbitzuaren modalitatea —bigarren tarifen jasotakoa— edozein delarik. Ez da aplikatuko aldez aurretik aldean behar bezala formalizatutako berariazko hitzarmenik badago, irizpide horren kontrako klausularen bat jasotzen duenik. Suteak itzaltzeko erabiltzeko diren kontratuen kasuan, hornikuntza-zerbitzuari dagokion kuota bakarrik likidatuko da, aldian behin.

Likidatutako denbora-tartea aintzat harturik hainbanatu ahal izango da tarifa hori, aplikazio-arauetan ezarritakoaren arabera.

2. Komunitateetan ur hotzaren kontsumoa neurtzen duten kontagailu orokorrak instalatzen direlarik, funtseko elementu desberdinei dagozkien zerbitzu-kuoten batuketa izango da ordaindu beharreko hiru hileko kuota. Eraikuntzaren Kode Teknikoaren (EKT) arabera egoki gertatzen den kontagailuaren diametroaren arabera zehaztuko da kuota hori.
3. Kontsumoa alta emanda duten administrazio-batzarren kasuan, AMVISAK hornitzen duen uraren kontsumoa neurtzen duen kontagailua hartuko da erreferentziatzat. Estolderia- eta arazketa-kontratua baino ez duten administrazio-batzarren kasuan, berriz, 40mm-ko kontagailua hartuko da erreferentziatzat.
4. Kontratua formalizatzean, hornikuntzari, estolderiari eta uraren arazketari dagozkien bermeak jarri beharko ditu eskatzaileak. Bi hiru hileko aldiari dagozkion zerbitzu-kuoten parekoa izango da berme hori —kontagailuaren kalibrea aintzat hartuko da—.

BIGARREN TARIFA.- Hiru hileko kuota

2.1. epigrafea.- Etxerako ur hotza hornitzeko zerbitzua:

Kontsumitzen den uragatik honela ordainduko da:	Kontsumoa / erabilera
Lehen tartea: lehenengo 9 m ³ -ak, m ³ bakoitzeko	0,211 euro
Bigarren tartea: 10 m ³ tik 36 m ³ ra bitartean, m ³ bakoitzeko	0,422 euro
Hirugarren tartea: 37 m ³ tik gora, m ³ bakoitzeko	0,844 euro

Arazketa-tratamenduagatik honela ordainduko da:	Arazketa / erabilera
Lehen tartea: lehenengo 9 m ³ -ak, m ³ bakoitzeko	0,140 euro
Bigarren tartea: 10 m ³ tik 36 m ³ ra bitartean, m ³ bakoitzeko	0,280 euro
Hirugarren tartea: 37 m ³ tik gora, m ³ bakoitzeko	0,560 euro

Estolderiagatik honela ordainduko da:	Estolderia / erabilera
Lehen tartea: lehenengo 9 m ³ -ak, m ³ bakoitzeko	0,060 euro
Bigarren tartea: 10 m ³ tik 36 m ³ ra bitartean, m ³ bakoitzeko	0,120 euro
Hirugarren tartea: 37 m ³ tik gora, m ³ bakoitzeko	0,241 euro

Legez ezagututako familia ugarien ohiko bizileku diren etxeetako kontsumoa likidatzeko, hirugarren kontsumo-tartean egindako kontsumoari bigarren tarteari dagozkion tarifak aplikatuko zaizkio. Hobari hori eskuratzeko eskatu egin beharko dute interesdunek, eta baldintza betetzen dutela egiaztatu. Fakturazio-datan aplikatuko da hobaria, baldin eta eskatzen den baldintza betetzen bada une horretan eta kontratuaren titularrak aldi berean familia ugariaren txartelaren titularrak bada.

2.2. epigrafea.- Etxerako ur beroaren hornikuntza eta zerbitzu osagarriak.

	Hornikuntza	Arazketa	Estolderia
Edozein delarik ere kontsumoa, m ³ -ko	0,422 euro	0,280 euro	0,120 euro

2.3. epigrafea.- Administrazio zentralaren, foru- eta toki-administrazioen nahiz beste erakunde batzuen menpeko zentroi zerbitzu ematea, Gasteizko Udalaren barruan ez dauden eta kontratuak bajan dituzten administrazio-batzarrak barne.

	Hornikuntza	Arazketa	Estolderia
Edozein delarik ere kontsumoa, m ³ -ko	0,874 euro	0,560 euro	0,251 euro

2.4. epigrafea.- Beste edozein motatako ondare, jabetza, industria eta zerbitzu-zentroetara, edo aurrekoetan jaso gabeko erabileretarako, egindako hornikuntza, eta ur zikinen sarearekin konexioa egin gabe izanik ere beren ur kontzentratuak ur zikinen araztegi isurtzen dituztenak oro. Zerbitzu edo jarduera profesionalak ematen dituzten etxebizitzak ere epigrafe honetan sartuko dira.

	Hornikuntza	Arazketa	Estolderia
Edozein delarik ere kontsumoa, m ³ -ko	0,874 euro	0,560 euro	0,251 euro

2.5. epigrafea.- Alta emandako ur-hornikuntza.

2.5.1. Herriei —administrazio-batzarrei— eta bestelako entitateei, AMVISAREN hornikuntzan % 100 alta emanda daudelarik —2.6. eta 2.7. epigrafeetan jasotzen direnak salbu—, honela kobratuko zaie:

- Ur-hornikuntza: hornitzen den m³-ko, 0,422 euro
- Arazketa-zerbitzua eta arazketa-tratamendua: kontsumitzen den ur m³-ko, 0,280 euro
- Estolderia-zerbitzua: kontsumitzen den ur m³-ko, 0,120 euro

2.5.2. Herriei —administrazio-batzarrei— eta bestelako entitateei, AMVISAREN hornikuntzan alta emanda egonik ere beren iturri propioetatik ere hornitzen direlarik, honela kobratuko zaie:

Gaur egun AMVISAK kudeatzen dituen baina ur hornikuntzan baja emanda dauden Gasteizko udalerriko nekazaritza eremuko administrazio batzarretan erregistratzen den edateko uraren kontsumoaren batez bestekoa kalkulatu da —biztanleko bakoitzeko, urtean—.

Batez besteko ur-kontsumo hori eta egoera horretan dagoen administrazio-batzar bakoitzeko biztanle-kopurua biderkatuko dira —2020ko abenduaren 31ko errolda aintzat harturik—, eta ateratzen den ur-bolumenaren gainean estolderia- eta arazketa-tarifa hauek aplikatuko dira:

- Ur-hornikuntza: AMVISAK hornitzen duen ur m³-ko, kontagailua irakurtzetik ateratzen dena aintzat harturik, 0,422 euro
- Arazketa-zerbitzua eta arazketa-tratamendua, kontsumitutako ur m³-ko, formula aplikatu ondoren, 0,280 euro
- Estolderia-zerbitzua, kontsumitutako ur m³-ko, formula aplikatu ondoren, 0,120 euro

Formula aplikatuzetik kontagailua irakurtzetik ondorioztatzen dena baino kontsumo txikiagoa ateratzen bada, azken hori aplikatuko da.

AMVISAK bi urtean behin berrikusiko ditu erroldako datuak eta batez besteko kontsumoa.

2.5.3. AMVISAK urik hornitzen ez dien eta % 100 beren iturri propioetatik hornitzen diren herriei —administrazio-batzarrei— formula hau aplikatuko zaie:

Gaur egun AMVISAK kudeatzen dituen baina ur-hornikuntzan baja emanda dauden Gasteizko udalerriko nekazaritza-eremuko administrazio-batzarretan erregistratzen den edateko uraren kontsumoaren batez bestekoa kalkulatu da —biztanleko, urtean—.

Batez besteko ur-kontsumo hori eta egoera horretan dagoen administrazio-batzar bakoitzeko biztanle-kopurua biderkatuko dira —2020ko abenduaren 31ko errolda aintzat harturik—, eta ateratzen den ur-bolumenaren gainean estolderia- eta arazketa-tarifa hauek aplikatuko dira:

- Arazketa-zerbitzua eta arazketa-tratamendua, kontsumitutako ur m³-ko, formula aplikatu ondoren, 0,280 euro
- Estolderia-zerbitzua, kontsumitutako ur m³-ko, formula aplikatu ondoren, 0,120 euro

AMVISAK bi urtean behin berrikusiko ditu erroldako datuak eta batez besteko kontsumoa.

2.6. epigrafea.- Alta emandako industrialdeetako ur-hornikuntza.

- Ur-hornikuntza, m³-ko, 0,874 euro

2.7. epigrafea.- Zigoitiko udalerriko herrietako ur-hornikuntza.

Gasteizko Udalak eta Zigoitikoak izenpetutako hitzarmenean finkatutakoaren arabera likidatuko da ur-hornikuntza.

2.8. epigrafea.- AMVISaren ur-hornikuntzaz baliatzen ez badira ere —edo hornikuntza-iturri osagarriak badituzte ere— ur zikinak Udalaren estolda-sarera isurtzen dituzten industriek etxeetakoez kanpoko ur zikinak estolda-sarera isurtzeagatik tasa ordaindu beharko dute arazketa-tratamenduagatik eta estolderiagatik.

2.9. epigrafea.- Udalerritik kanpoko herrietako etxeetako ur-isuriengatik, zisternak Krispiñako ur-araztegiaren hustearen tarifa ordaindu beharko da arazketa-tratamendua dela eta.

2.10. epigrafea.- Hitzarmen bereziak.

Bertan finkatzen denaren arabera likidatuko dira.

HIRUGARREN TARIFA - Materialak hornitu eta instalatzea.

3.1. epigrafea.-

Hauk izango dira kontagailuak eta txirrikak hornitu eta jartzearen zenbatekoak:

<u>Diametroa (mm)</u>	<u>Zenbatekoa, eurotan</u>		
	Kontagailua	Txirrika	Jartzea
13	52,23		19,09
15	52,23		19,09
20	65,29		21,09
25	120,54		26,12
30	158,72		31,14
40	341,53		37,16
50	537,41	452,03	93,42
65	652,93	522,34	103,47
80	944,23	602,70	130,59
100	1.140,11	662,97	164,74
125	1.476,62	783,51	205,92
150	1.808,11	883,96	229,03

SUTEAK

<u>Diametroa (mm)</u>	<u>Zenbatekoa, eurotan</u>	
	Kontagailua	Jartzea
65	291,31	103,47
80	321,44	130,59
100	391,76	164,74
150	572,57	229,03

Kontagailuak, hodiak, ura mozteko nahiz erregistroko giltzak eta AMVISAK hornikuntza eta saneamendurako dituen gainerako materialak fabrikatzaileak tarifaturako eroste-prezioetan hornituko dira, eta jartze-lana, berriz, eskulanaren kostuaren arabera kobratuko, Gizarte Segurantzaren barne, % 15a gehituz administrazio-, kudeaketa- eta gordetze-gastuengatik eta zeharkako gastuengatik.

3.2. epigrafea.- Kontagailua abonatuaren eskariz aztertzen denean, hark ordaindu beharko ditu, aldez aurretik, kontagailua desmuntatu eta muntatzeko lanak, baita Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari azterketagatik ordaindu beharrekoa ere. Kontagailua desmuntatu eta muntatzeko lanengatik ordaindu beharreko diru-kopurua 3.1 epigrafean kontagailuak jartzeari dagokionez finkatu den bera izango da.

Egiatzapenaren ondorioz kontagailuak gaizki funtzionatzen duela edo neurketa-akatsen bat gertatu dela ikusten bada, itzuli egingo da hura jarri eta kentzeagatik ordaindutako kopurua.

3.3. epigrafea.- Obra berrietarako edateko ura hornitzeko lotuneak eta horiei dagozkien bermeak honela fakturatuko dira:

<u>Hazbeteak</u>	<u>Eskubidea</u>	<u>Lotuneak</u>	<u>Zenbatekoa</u>	<u>Bermea</u>
	euroak	euroak	euroak	euroak
1-25 mm	371,67	622,79	994,46	521,30
1,5-40 mm	592,66	783,51	1.376,17	852,13
2,5-65 mm	964,32	1.044,69	2.009,01	1.343,35
3-80 mm	1.185,32	1.125,05	2.310,37	1.674,18
4-100 mm	1.486,67	1.476,62	2.963,29	1.714,28
6-150 mm	2.009,01	1.808,11	3.817,12	1.714,28

Saneamendu-lotune berrien kasuan, eskatzaileak bermea jarri beharko du, estolda nagusian sor litezkeen kalteen aurrean nahiz obra egitean suerta litezkeen irregularitasunen aurrean erantzuteko. Bermearen zenbatekoa, oro har, 520 eurokoa izango da, nahiz eta —egin beharreko obraren ezaugarriak direla eta AMVISAKo teknikariek beharrezko irizten diotelarik— berme handiagoa ere eskatu ahal izango den.

3.4. epigrafea.- Abonatuak bere betebeharrak ez betetzearen ondorioz hornikuntza bertan behera uzten bada, irizpide hauen arabera likidatuko dira bai bertan behera uzteak sortutako gastuak, bai —behar izanez gero— lotunea desegin eta lehengoratzeak berekin dakartzanak:

- Kontagailua zigilatzea nahiz zigilua kentzea, aldiko: 26,00 euro.
- Lotunea desegin eta lehengoratzea: 3.3. epigrafean finkatutako lotune-kostuaren zenbatekoaren % 50 likidatuko da.

3.5. epigrafea.- Instalazioak ikuskatu edo egiaztatzeke egiten diren joan-etorriak —abonatuak eskaturik egiten direlarik— 26,00 euroko zenbatekoan likidatuko dira. Instalazioaren matxuraren edo funtzionamendu okerraren erantzukizuna AMVISARI dagokiola egiaztatzen bada, kostua ez zaio abonatuari egotziko.

LAUGARREN TARIFA.-

Gasteizko Udalak honako hau ordainduko du bere ur-hornikuntza, estolderia eta arazketa guztiagatik nahiz berak eskatutako ur hornikuntzengatik —baldin eta hornikuntzaren xedea herritarrek baliatzea bada—, ikastetxeei hornitzen zaienagatik —Gasteizko Udalarari izaera orokorreko aginduz atxikitzen zaizkion kontserbazio eta zerbitzu gastua den aldetik— eta udal sail guztietako bulego tekniko eta administrazio bulegoetan nahiz udal zentro sozial eta kirol zentroetan kontsumitzen denagatik:

- Hornikuntza: 0,422 euro/m³
- Arazketa: 0,280 euro/m³
- Estolderia: 0,120 euro/m³

Tarifa hori Gasteizko Udalarentzat, haren menpeko erakundeentzat eta Udalak kapitalaren partaidetzaren % 100 duen sozietate publikoentzat bakarrik izango da. Hortaz, ezingo du horretaz baliatu, oro har, beste administrazio publikoen menpeko den inongo zerbitzu edo zentrok.

Nolanahi ere, ur-hornikuntza baja emanda duten Gasteizko udalerriko administrazio-batzarrekin sinatutako kontratuetan bai aplikatuko, baldin eta hornikuntzaren xedea herritarrek oro erabili eta baliatzea bada.

BOSGARREN TARIFA.-

AMVISA enpresaren laborategian egiten diren ur-analisietan 6.13. ordenantzan —Azoken, ingurumenaren, osasun orokorraren, laborategien, analisi kimikoen eta antzekoen alorreko ikuskaritza zerbitzuak— ageri diren tarifak aplikatuko dira.

2. KAPITULUA: ZISTERNAK ETA LOHIAK KRISPIÑAKO UR-ARAZTEGIAN HUSTEAREN TARIFA (HIRUGARREN SEKTOREA - UREZTATZAILEAK).

XEDEA

Etxeetako hondakin-urak baino jasotzen ez dituzten hobi septiko eta industrietako biltegietako hondakinak daramatzaten zisternak Krispiñako ur-araztegia hustea, eta Arratoko ureztatzailen batzarrak Krispiñako ur-araztegia kudeatzen duen isurketa arautzea.

SORTZAPENA

Krispiñako ur-araztegia isurtzen diren unean sortuko dira likidatu beharreko zenbatekoak.

ORDAINTZERA BEHARTUAK

Arabako lurralde historikoko udal, mankomunitate eta menpeko toki erakundeak eta Arabako lurralde historikoan kokatuta dauden pertsona fisiko nahiz juridiko ekoizle nahiz garraiatzaileak (kasu batean nahiz bestean, baldin eta ur zikinen garbiketa dela eta Gasteizko Udalarari tasarik ordaintzen ez badiote, edo, tasa hori ordaindu arren, hartune propioak badituzte).

ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK:

Krispinako ur araztegia hondakinak hustu ahal izateko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik horretarako baimena eskuratzea.

Hondakinak sortu eta garraiatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoen arduraren izango da araztegia behar bezala ustiatzeko beharrezko den informazioa ematea bertako arduradunari eta ikuskatze, lagin hartze eta gainbegiratze zereginak erraztea.

Zisternak araztegiara eramatean, baita horiek husteko egin beharrekoak egiterakoan ere, bertako arduradunak esandakoak bete beharko dira.

Hemen arautu gabekoei dagokienez, Krispinako araztegia zisternak husteari buruzko araudia (udalbatzarrak 1997ko ekainaren 20an onetsia eta 1997ko abuztuaren 1.eko ALHAOn -86. zk.- argitaratua) aintzat hartu beharko dute hondakinak sortu eta garraiatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek.

TARIFAK

Honela kalkulatu da kuota:

$$PT = C_F + C * P_F$$

Horietan izanik:

PT: Zenbatekoa, guztira (euro)

CF: Analisiak egitearen kostu finkoa (2022rako, 100 euro).

C: Karga kutsatzailea, formula honen arabera kalkulatu:

$$C = 0,4*(SS/200) + 0,4*(DQO/400) + 0,2*(N_t/35)* V * F$$

Horietan izanik:

C: Karga kutsatzailea, guztira.

SS: Solido esekiak (mg/l)

DQO: Oxigeno eskari kimikoa (mg/l)

N_t: Nitrogenoa, guztira (mg/l)

V: Hustutako hondakinen bolumena.

F: Faktore zuzentzailea: Udalerritik kanpoko herrietatik datozen hondakinen kasuan, baita Arratoko ureztatzaileen batzarrak isurtzen dituen lohien kasuan ere, F-ren balioa 1 izango da; industrietan sortuak badira, berriz, F = 1,75eko balioa aplikatuko da, Gasteizko udalerrirako urtez urte onartzen diren hornikuntza- eta arazketa-tarifei dagokienez erabiltzen den irizpide bera baliatuz.

DQO, SS eta N_t balioak Krispiñako araztegiaren hartzen den isurkinaren laginetik ateratzen direnak izango dira.

Adierazitako parametroen zehaztapen analitikoak Standard Methods for the Examination of Water and Wastewater metodoak edo beste metodo ofizialen bat baliatuz egingo dira.

P_F: Isuritako hondakin m³ bakoitzari, arazketa-tratamendua dela eta, dagokion kostu finkoa, hau da, ordenantza honen 1. kapituluko 2.4 epigrafean adierazten den arazketa-tratamenduaren kostua, indarrean dagoen industria-tarifa.

Estolda-sare publikoa garbitzeko zerbitzua esleitua duen enpresa ez da ordaintzera behartuta egongo, zerbitzu horretatik sortutako hondakinak ur-araztegiara isurtzen dituelarik.

APLIKAZIO-ARAUAK

Arau hauek kontuan hartuko dira ordenantza honetako tarifak galdatzeko orduan:

1.- Ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera egiten diren kontsumoei aplikatuko zaizkie tarifa hauek.

2.- Dagokien BEZ tasa aplikatuko zaie tarifei.

3.- SORTZAPENA

- Kontagailuak irakurtzen diren neuan sortuko dira 1. kapituluko 1., 2. eta 4. tarifak, eta hori aurreko azken irakurketarekin edo, kasua bada, kontsumo-estimazioak egiteko erabili zenarekin alderatuta likidatuko da kontsumoa. Zerbitzua erabiltzen hasi berriak direnen kasuan, kontratuan ageri dena joko da hasierako irakurketatzat. Hiru hilean behin kobratuko da.

Zerbitzuan baja hartzen dutenen kasuan, fakturatutako azken irakurketatik kontratuaren baja formalizatzen den egunera arte tarifa horiek aplikatuz ateratzen den zenbatekoa likidatuko da.

- Lehen tarifa, zerbitzu-kuota, hainbanatu ahal izango da likidatutako aldia 87 egunetik beherakoa edo 95etik gorakoa bada. Bestela, 91 egun dagokien hiruhileko kuota aplikatuko da.

- Bigarren tarifako 2.1. epigrafeari dagokionez —Etxerako ur hotza hornitzeko zerbitzua—, irakurketen artean igarotako denbora hiruhileko naturalarekin (91 egun) bat ez badator, tarifa aplikatzeko orduan eguneko batez besteko kontsumoa aintzat harturik banatuko da izandako kontsumoa tarteen artean.

Likidatutako aldiak bi ekitalditako kontsumoak hartzen baditu, hainbanaketa egingo da, ekitaldi bakoitzari dagokion egun-kopuruaren arabera, lehen ekitaldiaren emaitza ateratzen den metro kubikoen zenbaki osora murriztuz.

- 1. kapituluko 3. eta 5. tarifak eta 2. eta 3. kapitulueta zehazten direnak zerbitzua ematen den neuan sortuko dira. Ateratzen den zenbatekoa sortzen den neuan likidatuko da.

Kontagailuak hornitzea, horiek jartzea eta ikuskatzea, baita erabilitako materialak ere, eskatzen direnean kobratuko ditu AMVISAK. Likidazioaren berri eman ondorengo hamabost egunetan fakturatuko ditu AMVISAK instalazio eta konponketak.

4.- Ordenantza honetako lehen, bigarren, hirugarren eta tarifak aplikatzearen ondoriozko kuotak murriztu ezinak izango dira, ondoren adierazten diren kasuetan izan ezik.

- Ezkutuko jarrioren ondorio diren kontsumoen kasuan, AMVISAK ahalmena izango du —dagokion txosten teknikoan oinarrituta— estolderiaren eta ur arazketaren tratamenduaren tarifari dagokion zenbatekoan kuota murrizteko, baldin eta ondorengo zirkunstantzia guzti-guztiak egokitzen badira eta behar bezala justifikatzen:

- o Ezkutuko jarria izan beharko du, esan nahi baitu subjektu pasiboak ez duela modurik izan hodiekan edo neurketa-tresnetan izandako kalteen berri alde aurretik izateko.
- o Axolagabekeriarik ez dela izan egiaztatu beharko dute AMVISAKo zerbitzu teknikoek, ez jarria eragin zuten ekintzetan, halakorik izan bada, ezta jarria gertatuz geroztik izandako jokabidean ere.

Gehienez ere zazpi eguneko epean konpondu beharko da haustura edo kaltea izan duen instalazioa, hura hauteman edo aurkitzen denetik.

- Kontsumoa benetan gertatu eta dokumentatu den —suteetarako kontagailuak neurtua— ezbehar baten eraginez izan bada, murriztu egingo da kuota, estolderiaren eta ur arazketaren tratamenduaren tarifari dagokion zenbatekoan.

5.- Egindako kontsumoak Gasteizko Uraren Ziklo Osoaren Kudeaketa Arazteko Ordenantzaren ezarritako prozedura eta baldintzak kontuan hartuz zehaztuko dira, hau da:

- Neurketa-ekipoaren irakurketan lortutako kontsumo-datuen arteko aldearen arabera.

- Kontsumoaren zenbatespenaren arabera. Gorako hodiko kontratuetan kontsumo zenbatetsia hilean 322 m³koa izango da.
- Kontsumoen ebaluazioaren arabera. Irakurketa egitean neurketa-ekipoan akatsen bat antzematen denean egingo da, edo irakurketa egin behar denean neurketa-ekipoa galdu edo desagertua bada.

Aurretiako kontsumoen indizerik ez bada, jarduera bakoitzeko ezarritako kontsumo-indizeen arabera kalkulatu da kontsumo ebaluatua:

JARDUERA	KONTSUMOA (m ³ hilean)
• Garbiketa-txorrota komunitarioak	3
• Elikagai-denda txikiak, arrandegiak izan ezik • Jantzi, oinetako eta osagarrien dendak • Banku-sukurtsalak. Aseguru-etxeak. Higiezin-agentziak. Zerbitzuak oro har. • Aroztegiak • Mediku-kontsultak • Lore-dendak • Gainerako denda txikiak eta zerbitzu profesionalak Negozioaren ezaugarriek eta tamainak erakusten badute egindako kontsumoa hemen adierazitakoa baino nabarmen handiagoa izan dela, sektore berekoak izanik antzeko tamaina eta ezaugarriak dituzten abonatuaren ohiko balioak aintzat harturik zehaztuko du AMVISAK hileko kontsumoa.	3
• Etxeko kontsumoa • Ur beroa hornitzeko kontratu komunitarioak (elementu bakoitzeko)	14 2
• Ile-apaindegiak • Dentistak. Hortz-klinikak • Akademiak • Zerbitzuguneak. Gasolindegiak • Pilotalekuak	25
• Arrandegiak • Ostalaritza- eta catering-zerbitzuak • Tindategiak • Ibilgailuak eskuz garbitzeko guneak • Auto-kontzesionarioak* • Haur-eskolak • Gizarte-etxe eta zentro soziokulturalak	50
• Tabernak, kafetegiak eta jatetxeak • Gimnasioak • Okindegiak*	75
• Ikuztegiak • Jabe-komunitateak: berdegune pribatuak ureztatzea • Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	125
• Supermerkatuak* • Spa duten estetika- edo <i>fitness</i> -zentroak • Anbulatorioak • Igerilekurik gabeko kiroldegiak • Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako institutuak	150
• Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak • Adinekoentzako egoitzak • Auto-garbiketa duten gasolindegi eta zerbitzuguneak. Auto-garbiketa industrialak	500
• Igerilekua duten kirol-instalazio publiko edo pribatuak (gizarte-etxeak, kiroldegiak, gimnasioak...) • Merkataritza-guneak	1.500
Industria-jarduerak: Gasteizen askotariko industria jarduera dagoenez, eta enpresa horietan dauden langileen kopuruak oso ezberdinak direnez, horien hileko kontsumoa zehazteko alor berean diharduten eta antzeko neurri eta ezaugarriak dituzten abonatuaren ohiko balioak hartuko ditu aintzat AMVISAK.	
Etxebizitzetarako obra-kontratuak: bizitegi-unitate bakoitza eraikitzeke kontsumitzen den ura 30 m ³ dela kalkulatu da. Bestelako obretan, AMVISAK antzeko helburua duten kontratuen datuak hartuko ditu oinarritzat hileko kontsumoa zehazteko.	

Gorako hodiak: Gorako hodiko kontratuetan kontsumo balioztatua hilean 322 m³koa izango da.

Kontsumoen balioztatzea behin betiko likidaziotzat joko da.

6.- Sute kasuetan erabilitako ur-etorria neurtzeko kontagailua baino ez duten komunitateek, etxeetarako urari gagozkiola, edozein delarik ere instalatutako kontagailuaren kalibrea, barrualdeko diametroa 40 mm-koa dutenei dagokien kanona ordainduko dute. Hornikuntza-kontratuan titularraren aldaketa gertatuz gero, kontagailu berria instalatu beharko da nahitaez, AMVISAK aldeko txostena egiten duelarik dagoena uzteko baimena eman ezean.

7.- Iruzurrik izan bada, eta neurtzeko modurik badago, abonatuak, kontratua urratzeagatik ordaindu beharrekoek gain, iruzurra atzematean indarrean dauden tarifen bikoitza ordaindu beharko du —bai kuota aldakorri dagokionez, bai AMVISAK abonatuari jakinarazpena helarazten dionean indarrean dagoen kuota finkoari dagokionez—, neurketa-ekipoan erregistratutako kontsumoa aintzat harturik. Iruzur egin den aldiaren likidatu beharreko kuota finko guztiak likidatuko dira.

Neurketa-ekiporik ez badago edo manipulatu edo aldatu egin bada, baita iruzurraren ezaugarriengatik kontsumitutako uraren bolumena zehaztea ezinezkoa bada ere, Gasteizko udalerriko uraren ziklo integralaren kudeaketa arautzen duen ordenantzan azaltzen den moduan balioztatuko da kontsumoa.

Iruzurraren behin-behineko likidazioa egiten den unean erabiltzaileak hura onartzen badu, eta alegazioak aurkezteko aukerari uko egin eta behin-behineko likidazioa behin betikotzat jotzen badu, AMVISAK % 20 murriztuko du likidazioaren zenbatekoa.

8.- Erabiltzaileak frogatzen badu —eta AMVISAK hala egiaztatzen— ur zikinen isurketak ez diola estoldasare publikoari eragiten, eta ur horiek ez direla arazten udalerriko inongo sistema publikotan, zerbitzu horiei dagozkien tarifak ez aplikatzeko eskubidea izango da.

9.- Isuritako hondakin-uraren bolumena Udalaren hornikuntza-saretik kontsumitutako uraren bolumenarekin bat ez datorren jardueren kasuan —handiagoa nahiz txikiagoa izan, dela bestelako hornikuntza-iturri alternatiborik dagoelako, dela ekoizpen-prozesura ura sartzen delako edo lurrunketa-galerak daudelako—, AMVISAK arazketa edota estolderia kontzeptuengatik fakturatu beharreko bolumenaren kalkulua etxeetakoek kanpoko ur zikinak estolda-sarera isurtzeari buruzko udal ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera egingo da. Bertan erreferentzia egiten zaion elementu kuantitatiboari dagokion parte Gasteizko Udal Urak SAK (AMVISA) likidatuko du —estolderia eta arazketa kontzeptuak—, hornikuntzaren maiztasun berarekin, aurreko ekitaldiko likidazioan fakturatutako bolumena oinarritzat harturik, ordenantza horretan ezarritakoaren arabera lortzen den datu erreala baliatuz urteko behin betiko likidazioa egin bitartean.

10.- Edozein zalantza sortzen delarik ur-hornikuntzaren, estolderiaren eta arazketaren inguruan, Gasteizko udalerriko uraren ziklo integralaren kudeaketa arautzen duen ordenantza xedatutakoaren ildotik argituko da.

ORDAINKETA ATZERATU EDO ZATIKATZEA

Zor diren zenbatekoen ordainketa atzeratu edo zatikatu ahal izango dio AMVISAK interesdunari, zirkunstantziak aintzat hartuta, hark modu arrazoituari eskatuz gero. Hauek izango dira zatikatze baldintzak, gehieneko atzerapen-modalitate gisa, esan nahi baita murriztu ahal izango direla, zehazten diren zenbatekoen arabera:

- 300 euro arteko zorrak gehienez hiru hilabeteko epearen barruan zatikatu ahal izango dira.
- 300 eurotik 1.000ra arteko zorrak gehienez sei hilabeteko epearen barruan zatikatu ahal izango dira.
- 1.000 eurotik gorako zorrak gehienez hamabi hilabeteko epearen barruan zatikatu ahal izango dira.

Hemen ezarritakotik gorako atzerapen edo zatikatzerik onartzekotan, AMVISAREN kudeatzailearen onspena beharko da.

KEXA, ERREKLAMAZIO ETA ERREKURTSOAK, ETA JURISDIKZIOA

Kexa, erreklamazio eta errekurtsuak aurkeztea:

Zerbitzuaren erabiltzaileak bere kexak eta erreklamazioak aurkezterik izango du, baita, behar izanez gero, AMVISARI informazioa eskatu ere, bezeroari arreta egiteko zerbitzuan.

Guztia ere, gatazkak konpontzeko bide judicialaren aurretiko edo harengandik independente diren bide alternatibo eta osagarrietara jotzeko aukera gorabehera.

Euskadiko Kontsumorako Arbitraje Batzordeari atxikita dago AMVISA. Hortaz, ezadostasuna egokituz gero, edozein kontsumitzailek eskatu ahal izango du berorren arbitrajea, bitarteko hauetakoren bat baliatuz: Kontsumobideren lurralde-zerbitzua, Kontsumitzaileen eta kontsumatzaile-elkarteen informaziorako udal bulegoa edo, zuzenean, Kontsumoko Arbitraje Batzordea.

Eskumena duen jurisdikzioaren aurrean AMVISAREN kontra abiarazten diren auziak konpontzeko, Gasteizko auzitegi eta epaitegien menera geratzen dira berariaz aldeak, uko egin beharko baitiete beren forua dela eta legezkiekeenei ere.

Aurkeztutako erreklamazioak ez du etenaraziko uneko fakturazio edo likidazioak ordaindu beharra.

Ebazpen, laudo edo epai judicial irmoa erreklamatzaileraren edo erreklamaturako eskubide edo ekintzaren aldeko egokitzen bada, lotesletzat joko du hura AMVISAK, eta hartan jasotzen diren neurriak oro beteko, baita erreklamatzaileraren aldeko likidazioa egin ere, zerbitzuaren erabiltzaile horrek alde aurretik ordaindutako zenbatekoa oinarritzat hartuta.

Lehen Xedapen gehigarria

Gasteizko udalerriko uraren ziklo integralaren kudeaketa arautzeko ordenantzaren —udalbatzaren 2010eko azaroaren 26ko erabakia, 2011ko urtarrilaren 21eko ALHAO— ur-horniketa eta saneamendurako udal zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasari eta Krispiñako ur-araztegiara isurtzeagatik ordaindu beharreko tasari egiten zaizkien erreferentziak uraren ziklo integralaren udal zerbitzuen zerga-sistemaz kanpoko izaera publikoko ondare-prestazio honi egiten zaizkiola ulertuko da.

Bigarren xedapen gehigarria.

2022ko lehen sei hilabetean azterlan bat egingo da, kontsumoaren araberako tarifa ez ezik etxebizitzetan bizi direnen kopuruen araberakoa ezartzeko proposamena bideragarria den jakite aldera.

Azterlan horren emaitza ikusirik, tarifa hori hurrengo urteetan ezartzeko proposamen teknikoak egingo da, behar diren doikuntzekin

Xedapen indargabetzailea

Ordenantza hau eta bertan arautzen diren tarifak eta gainerako eskubide ekonomikoak indarrean jartzean, indargabetuta geratuko da Ur horniketa eta saneamendurako udal zerbitzuak arautzen dituen 6.7 ordenantza fiskala, eta orobat Etxeetakoez kanpoko ur zikinak estolda-sarera nahiz Krispiñako ur araztegiara isurtzeagatik arautzen dituen 6.8 ordenantza fiskalaren II. atala —Zisternak Krispiñako ur araztegiaren hustea— eta III. atala —Lohia zuzenean Krispiñako ur araztegiara hustea (hirugarren sektorea - urreztatzaileak—.